

ITSASOARI BEGIRA

Ni hamar urteko neskatxa bat naiz, ez naiz neska berezia, neska arrunt bat baizik. Egunero nire herriko ikastolara joaten naiz. Andereñok ipuin bat idatzi behar dugula esan digu. Ni, ipuinak eta horrelako gauzak idatzi behar ditudanean, hondartzara joaten naiz. Hondartzan ideiak etortzen zaizkit.

Beste askotan bezala, amari esan diot:

- Ama, hondartzara noa ipuin bat idaztera.

Horrela abiatu naiz etxe ondoko bidexkatik itsasertzera. Zapatak kendu ditut eta zapatak eskuak ditudala hondarretan sartu naiz. Hara eta hona ibili naiz hondartza ertzean ipuinerako ideia bat aurkitu nahian. Suak erretako baso bati buruz idaztea pentsatu dut, ilargira bidaian joan zen tximino baten gorabeherak kontatzea ere bururatu zait, baita futbolari ospetsua egin zen neska baten historia ere. Baina ez naiz erabat konforme geratu.

Itsasoari begira jarri naiz hondarretan eserita eta olatu gainean zerbait kulunkan zebilela iruditu zait. Begira jarri naiz eta poliki-poliki olatuek nigana zekartela ikusi dut. Altxa eta itsasoko ur hotzetan sartu naiz.

Kristalezko botila bat da kortxo eta guzti, barruan ere badu zerbait, orri bat ikusten diot.

Saiatu naiz kortxoa kendu eta bi behatz sartuz papera ateratzen, baina ezin. Itsasoak hondartzara ekarritako makiltxo batekin ere saiatu naiz baina ez dago ateratzeko modurik. Pentsatu dut hondartzako arroka batean kolpatuz botila puskatzea baina pena eman dit. Altxorra eskuan hartu eta korrika abiatu naiz etxe barrura zer zegoen ikusteko irrikitan.

Amari kaixo esan eta korrika gelara sartu naiz. Ohe gainean etzan naiz eta botilari indarra beheraka eginez lortu dut azkenean.

Gutun bat zegoen paper horitu batean eta gutunaren barruan familia baten argazkia topatu dut.

Argazkiari begira geratu naiz pixka batean harrituta. Zeintzuk ote dira? Gurasoak eta hiru haur agertzen dira. Arropa ezberdinak dituzte, kolore bizitakoak. Azala ni baino ilunagoa dute, eta begiak etzanak. Baina benetan bereziak, emakumezkoak dira. Flekiloa zuzena dute, ilean koloretako zapia, lepoan eta zangoetan urre koloreko, uztai dizdiratsuak. Amak alabak baino uztai gehiago ditu. Nortzuk ote dira?

Nigandik oso ezberdinak dirudite baina alaba nire adineko neskatxa bat zela iruditu zait.

Segituan gutuna irakurtzen hasi naiz. Ma-da izeneko hamar urteko neskatxa batek sinatzen du. Gutuna “Min gala ba:” jarriz hasten da. Hori kaixo izango da bere hizkuntzan. Eta honela jarraitzen du:

“Ez duzula inoiz ikusi horrelako lepo hain luze eta barregarririk? Baina Palaung bat zarenean ohitura da urrezko uztaietz apaintzea lepoa. Nik koilarea daramat 5 urte egin nituenetik. Chamanak, tribuko aztiak, jartzen digu lehenengo kobrezko uztai lepoan eta zangoetan. Bi urtez behin aldatzen ditut uztaiak. Gero uztaiak betirako izango dira eta orduan emakume izango naiz eta ezkondu ahal izango dut. Ba al dakizu zergatik eramaten ditugun koilare astun hauek? Nire amarenak ia 8 kg. pisatzen ditu. Arrazoa aspaldikoa da: esaten da garai batean tigreek gure tribuko emakumeak jaten zituztela. Lepoko urrezko uztai ei esker babesten zirela tigreengandik. Orduz geroztik babesteko modu hau ohitura bihurtu da. Turistak etortzen dira gure herrira munduko azken emakume jirafak ikusteko. Myamarrekoak gara baina orain Muangen bizi gara Tailandian Mae Hong Song oihanean. Turismotik bizi gara, oroigarriak saltzen ditugu eta guri argazkiak ateratzen uzten diegu. Oso zoriontsu naiz emakume jirafa izateaz eta espero dut beti izango direla”.

Asko gustatu zait neska horren gutuna. Lagun berri bat egin dudala iruditu zait. Munduaren beste aldeko lagun bat, nigandik oso ezberdina baina ni bezalakoxea, hamar urteko neskatxa bat.

Segituan ideia bat bururatu zait. Berehala nire familiako guztiak bildu ditut etxe aurrean argazkia atera eta gutuna idazten hasi naiz. Gutun bat idatzi dut nolakoa naizen eta zer egiten dudan esanez. Amari zumo botila hartu diot eta bertan sartu ditut nik idatzitako gutuna eta nire familiaren argazkia. Botila hartu eta korrika joan naiz

etxe ondoko bidexkatik hondartzara. Han olatu gainean utzi dut itsasoak eraman dezan. Hondarrean eseri naiz botilari begira noiz desagertuko zain.

Aurrerantzean ere ikastolan ipuinak idazteko agintzen digutenean hondartzara joango naiz itsasoari begiratzera eta espero dut egun batean beste lagun baten botila jasoko dudala nigandik ezberdina den eta bizitza zeharo ezberdina duen lagun berri baten gutuna.

Eta bitartean itsasoari begira ipuinak idazteko ideiak etorriko zaizkit.

Maddi Atxaga Ozaeta
10 urte